

1) Sarrera-profilak

Egin nahi diren ikasketetan eskaeren kopurua eskaintako plazena baino handiagoa denean, plazak irizpide hauen arabera esleitu dira:

1. Batxiler-titulua izan eta selektibitatea gaindituta dutenak (baldin eta ez badute hasi ikasketa unibertsitariorik): plaza guztien %60.
2. Goi-mailako Teknikari-titulua edo Goi-mailako Kirol Teknikari titulua dutenak: plaza guztien %30.
3. Bestelakoak: plaza guztien %10.
 - 25 urtetik gorakoen sarbidea hartzen dutenentzat: %2.
 - 45 urtetik gorakoen sarbidea hartzen dutenentzat: %1.
 - %33ko ezintasun-maila edo handiagoa duten ikasleentzat: %3.
 - Goi-mailako kirolarientzat: % 1.
 - Unibertsitate-ikasketak hasita dituzten ikasleentzat eta unibertsitateko titulazioa daukaten ikasleentzat: %3.

2) Onarpen-nota kalkulatzeko irizpideak

Ikasleak hautaketa-prozesu honen arabera onartuko dira:

1. Batxiler-titulua izan eta selektibitatea gaindituta dutenak (baldin eta ez badute hasi ikasketa unibertsitariorik):

- Onarpen-nota honela kalkulatu da: Batxilergo notaren %60 + Selektibitateko Fase Orokorren notaren %40 + $a \times 0,2 + b \times 0,2$ (a eta b: fase espezifikoan, sartzeko notarik onenak ematen dituzten gainditutako ikasgaietako kalifikazioak; ikasgai bi, gehienez).

- Selektibitatea 2010 baino lehenago gainditu dutenen kasuan, fase espezifikora aurkeztea erabakitzen baldin badute, onarpen-nota honela kalkulatu da:

Sartzeko Probaren behin betiko kalifikazioa (2010 edo aurreko ikasturteak) + $a \times 0,2 + b \times 0,2$.

HUHEZIK 0,2ko haztapena emango die ondoko taulan ezarritako ikasgai guztiei, jarraian azaltzen den moduan:

		BATXILERGOKO IKASGAIAK														GRADUAK		
LEHEN HEZKUNTZA	HAUR HEZKUNTZA																	
IKUS-ENTZUNEZKO KOMUNIKAZIOA																		
		Biologia	Lurraren eta ingurumenaren zientziak	Ikus-entzunezko kultura	Marrazketa artistikoa	II Marrazketa tekniko II	Diseinua	Enpresaren ekonomia	Fisika	Artearen historia	Geografia	Grekoa II	Musikaren eta dantzaren historia	Latina II	Literatura Unibertsala	Matematika II	Gizarte Zientzietan aplikaturiko matematika II	Kimika

*0.2 

2. Goi-mailako Teknikari-titulua edo Goi-mailako Kirol Teknikari titulua dutenak espediente akademikoaren batez besteko notaren arabera:

Lehentasuna izango dute egin nahi den gradu-titulazioko ezaguera-adarrari lotutako Lanbide Heziketako titulua dutenek.

	GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOEN FAMILIAK	GOI MAILAKO TITULUEN ZERRENDA
HAUR HEZKUNTZAKO GRADUA	Gizarte eta Kultur Zerbitzuak	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Gizarte eta kultur animazioa ▪ Gizarte integrazioa ▪ Haur hezkuntza ▪ Zeinu mintzairaren interpretazioa
LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA	Gorputz eta kirol ekintzak	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Gorputz eta kirol ekintzen sustapena
	Gizarte eta Kultur Zerbitzuak	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Gizarte eta kultur animazioa ▪ Gizarte integrazioa ▪ Haur hezkuntza ▪ Zeinu mintzairaren interpretazioa
IKUS-ENTZUNEZKO KOMUNIKAZIOKO GRADUA	Arte grafikoak	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Argitalpen diseinua eta produkzioa ▪ Arte grafikoen industrietako produkzioa
	Irudia eta Soinua	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Ikus-entzunezkoen eta ikuskizunen errealizazioa ▪ Soinua ▪ Irudia ▪ Ikus-entzunezkoen, irratia- eta ikuskizunen produkzioa

Maiatzaren 7ko 558/2010 Errege Dekretuaren arabera, baldin eta unibertsitateko ikasketa ofizialetan graduko eskaera-kopurua plaza-kopurua baino handiagoa bada, lanbide-heziketako ikasleak fase espezifikora aurkeztu ahal izango dira onarpen-nota hobetzeko. Kasu horietan onarpen-nota honela kalkulatu da:

$$\text{Onarpen nota} = \text{ZBN} + a \cdot \text{M1} + b \cdot \text{M2}$$

ZBN = Heziketa-zikloko batez besteko nota.

M1, M2 = Fase espezifikoan gainditutako proben artetik onarpen-nota onena ematen duten kalifikazioak (gehienez, bi).

a, b = Fase espezifikoko azterketako notak haztatzeko parametroak.

3. 25 urtetik gorako sarbide-proba gainditu dutenak: sarbide-probaren notaren arabera.

4. 45 urtetik gorako sarbide-proba gainditu dutenak: sarbide-probaren notaren arabera.

5. Unibertsitate-titulua dutenak edo unibertsitate-ikasketak hasita dituztenak: espediente akademikoaren batez besteko nota.

3) 2011-2012 ikasturteko informazioa

Ibilbide bakoitzeko ikasle-kopurua eta sarbide-nota ekaineko eta iraileko hautatze-prozesuan:

TITULAZIOA	PLAZA KOPURUA	NONDIK	EKAINEKO SARRERA NOTA	IRAILEKO SARRERA NOTA
HAUR HEZKUNTZA	108	Selektibitate	5,3	5,2
		Lanbide Heziketa	5,8	5,8
LEHEN HEZKUNTZA	37	Selektibitate	7,4	5,5
		Lanbide Heziketa	6,3	5,9
LH-ATZERRIKO HEZKUNTZA	35	Selektibitate	5,8	5,6
		Lanbide Heziketa	7,1	5,9
LH-HEZKUNTZA BEREZIA	32	Selektibitate	5,1	5,0
		Lanbide Heziketa	6,9	6,9
LH-HEZIKETA FISIKOA	38	Selektibitate	6,8	5,5
		Lanbide Heziketa	8,3	6,3
IKUS-ENTZUNEZKO KOMUNIKAZIOA	45	Selektibitate	5,6	5,6
		Lanbide Heziketa	--	--